

Itsasoaren erabilpen sinbolikoak

XX. mendeko zenbait idazleen obran

(Symbolic uses of the sea by some Basque writers of the 20th century)

Apalategi, Ur
Univ. de Pau et des Pays de l'Adour
Faculté Pluridisciplinaire de Bayonne
F-64100 Baiona

BIBLID [1137-442X (2002), 21; 223-236]

Itsasoa aipatzerakoan, XX. mendeko euskal idazleak «beste» zerbaitetaz ari zaizkigu, zeharkako adie-razpidea hartua dute. Hain da azkarra itsasoaren berezko ahalmen sinbolikoa –sinbolizitatea– non baitiru-di ezin daitekeela itsasoa aipa idazlearen deskribapen nahiz aipameneke bigarren zentzu bat hartu gabe. «Esaidazu zer ikusten duzun itsasoan eta nolako idazlea zaren erakutsiko dizut» gisako literatur test bat egiten da hemen itsasoaz baliatu diren hainbat euskal idazlerekin (Txomina Agirre, Etxepare «Mirikua», Lauaxeta, Iratzeder, Mirande, Txillardegi, Gandiaga, Sarrionaindia).

Giltza-Hitzak: Literatura. Itsasoa. Sinboloak. Mugagabetasuna. Absolutua. Interpretazioak. Jainkoa. Euskal Herria.

Los escritores vascos del siglo XX cuando hacen alusión al mar nos hablan de «otra» cosa, utilizan un modo de expresión indirecto. El poder simbólico o simbolización propia del mar resulta tan fuerte que parece que no pudiera hacerse mención del mar sin que las descripciones o alusiones del autor tomen un segundo sentido. En el presente trabajo se lleva a cabo un test literario del tipo «dime qué ves en el mar y te mostraré qué clase de escritor eres» con escritores vascos que han utilizado el mar (Txomina Agirre, Etxepare «Mirikua», Lauaxeta, Iratzeder, Mirande, Txillardegi, Gandiaga, Sarrionaindia).

Palabras Clave: Literatura. Mar. Símbolos. Inmensidad. Absoluto. Interpretaciones. Dios. País Vasco.

Lorsque les écrivains basques du XXe siècle font allusion à la mer, ils nous parlent d' «autre» chose, ils utilisent un mode d'expression indirecte. Le pouvoir symbolique ou symbolisation propre de la mer est si fort qu'il semble que l'on ne pourrait pas mentionner la mer sans que les descriptions ou les allusions de l'auteur aient un second sens. Dans ce travail, on réalise un test littéraire du type «dis-moi ce que tu vois dans la mer et je te démontrerai quel sorte d'écrivain tu es» avec des écrivains basques qui ont utilisé la mer (Txomina Agirre, Etxepare «Mirikua», Lauaxeta, Iratzeder, Mirande, Txillardegi, Gandiaga, Sarrionaindia).

Mots Clés: Littérature. Mer. Symboles. Immensité. Absolu. Interprétations. Dieu. Pays Basque.

Rorschach psikiatra suitzarrak tintazko beltzuneak jartzen zizkien begiaurrean bere pazienteei, azken hauek bertan ikusiko zutenaren arabera diagnostiko batera heltzeko asmoz. Bada, hermeneutika psikiatriko honek berdin berdin funtzionatuko zukeen gaixoak itsas hegira eraman eta eremu gatzaturara begira jarri izan balitu. Izan ere, zerumugaraino amaigabeki luzatzen den itsasoak askatasun osoa eskaintzen baitio irudipenari bere kezka eta maniak nola edo hala proiektatu ditzan. Beste modu batera erraiteko, itsas azala gure barne-zinemak bere filmak biziarazteko darabilen pantaila neurrigabea da. Nor bere itsasoa bizi du. Eta ez da beharrezkoa kostaldean biziitza itsasoarekin ameskeria poetikoetan murgiltzeko. Sekulan hondartza bat bere begiez ikusi ez duen gizakiaren baitan ere, "itsaso" hitzak oihartzun berezia lortzen du, irudi-jarioa abian jarriz. Horretan datza, hain xuxen, sinboloei egotzi ohi diegun unibertsaltasuna. Alabaina, itsaso fisiko eta egjazkoarekin betidaniko harremana izan duen herriak, nola baita Euskal Herria, baduke itsasoa modu berezi batean sinbolizatzeke joera, pentsa lezake batek baino gehiagok. Ez dezagun ahanztu, halere, idazleak ez duela sekulan itsasoarekin lan egiten, "itsaso" hitzarekin baizik. Eta hitzetik gauzara mundu bat dago, literaturak betidanik lehengaitzat hartu duen mundua.

Badirudi itsasoaren motiboak mundu poetikorantz eramaten duela egilea, halaber bezala. Nahiz eta eleberria idazten egon, nahiz eta eleberri errealista idazten egon, itsasoa aipatzen den ber, dimentsio poetikoa azaleratzen da eta dimentsio prosaiko, materialista, antropologiko, soziologiko eta abarrei gaina hartzen die (ikus *Haur besoetakoa* edo *Haizeaz bestaldetik*, euskal nobelagintza modernoko obretan poetikotasunik gehiena dutenak, prosa poetikora hurbilduz eta errealismo soziologikotik urrun). Itsasoa aipatzerakoan, XX. mendeko euskal idazleak «beste» zerbaitetaz ari zaizkigu, zeharkako adierazpidea hartua dute. Arrantzaleek osaturiko giza-talde bat aipatzen denean ere (*Kresala*), zeinaretzat itsasoa, beste ezer baino lehen, bizibide ekonomikoa den, hala eta guztiz ere, itsasoaren deskribapenak dimentsio sinbolikoa hartzen du segidan. Hain da azkarra itsasoaren berezko ahalmen sinbolikoa –sinbolizitatea– non baitirudi ezin daitekeela itsasoa aipa idazlearen deskribapen nahiz aipamenek bigarren zentzu bat hartu gabe.

Gure jardunaren helburua, hastapen batean, garbia zen. «Erraidazu zer ikusten duzun itsasoan eta nolako idazlea zaren erakutsiko dizut» gisako literatur test bat egin gogo genuen itsasoaz baliatu diren hainbat euskal idazleekin. Joko honetan sartu ahala, alta, oihartzu gara, Itsasoa euskal literatur paisaiako pertsonaia bailliztan agertzen ari zitzaigula, bisaia aniztun pertsonaia proteikoa. Bihoazkizue, beraz, uhainen itxurapean (zenbaitz lodi, bes-tetzu guttiago), zenbait idazleren itsasoek eragindako azterketak.

LEHEN UHAINA: ITSASOA ETA ABSOLUTUA

Itsasoaren ezaugarri nagusienetakoa bere hedadura da, eta zabalera izugarri honek ondorio zuzena dakar: itsasoa inguratzen gaituena da, lurra, etxea, nia inguratzen dituena. Irudipenaren legeen arabera ezinezkoa da, aitzitik, lurra itsasoa inguratzen duela erraitea. Itsasoa da gure ttipitasunean besarkatzen

gaituena. Denatasunaren irudi ezin egokiagoa, beraz, absolutuarena. Eta hala da, absolutuari lotzen zaizkion kontzeptu behinenak, hala nola bizia, herioa eta Jainkoa aurkituko ditugu euskal idazlearen itsasoaren dekrribapenen gibelean. Noski, eta honetan datza egingo dugun idazle ezberdinen aipamen bateratuaren interesa, nork bere izena demaio absolutuari. Urliarentzat absolutuaren izena Jainkoa izango den bitartean, Sandiarentzat, berriz, Euskal Herriaren askatasuna izango da eta Berendiarentzat, azkenik, Heriotza.

Itsaso-Absolutuarekiko harreman zorionsu eta euforikoa mistikoengan aurkitzeak ez gaitu harrিতuko. Hala gertatzen da «Iratzeder» (*alias* Jean Diharce) olerkari katolikoarekin. 1938ko *Pindar eta Iano* deitu bilduman, “Itsasoa” olerkian, hainbat aldiz bere idazle-bizitzan zehar erabiliko duen sinbolo honen erranahia azaltzen du:

Itsasoa!
Zerk du ba zure baitan xoratzen gogoa?
Zabal zabal zate, muga gabekoa:
Gogoratzen dautazu gure Jaun Goikoa¹

Ondoko ekoizpenetan, behin eta berriro berretsiko du irudi hau, fusio mistiko zorionsu bati bide emanez, hala nola 1950eko “Itsasoa” olerkian:

Itsasoa, itsasoa,
Uhain zabal zoroan,
[...]
Jainkoaren itsasoa,
Bozkario zabal eta osoan².

Alabaina, zahartzaroko olerki batean aitortuko duenez (“Uhaineri nausi”, 1971), fusio egoera ez du berebaitakoa izan eta borrokatu behar izan zuen, eta bokazioaren barne-drama metaforizatzeko berriro ere itsasoaren motibo darabil:

Fraide sartzean, Zeruletzean
nere ustez nihortua,
Bota nituen uhain artean
Bai bihotza, bai burua.
Uhainez uhain eman naiz eman,
Jaikoaren itsasoa.

[...]

Nintzen nihauri eginez uko
Nahitez naiz norbait egin:
Orduan berriz baketzerako
Zer borrokak uhainekin...³

1. IRATZEDER, *Biziaren olerkia*, Gero, Bilbo, 1983, 56. or.

2. *Ibid.*, 234. or.

3. *Ibid.*, 369. or.

Ikusten denez, absolutuan murgiltzean gertatu ohi den norberatasunaren ezabatzea mintzaira poetiko garden bezain zehatz batetan adierazten saiatzen da idazlea eta erran behar da formula poetiko trinkoaren dohaina baduela.

Itsasoa Jainkotzat, edo hobeki erraiteko, Jainkoa Itsasotzat daukaten XX. mendeko euskal idazleen artean koka genezake Txomin Agirre prosalaria ere. Kostaldeko arrantzale herrixka bateko biztanle arketipikoen bizitza deskribatzen duen *Kresala* ezagunean, itsasoa konotazio aberatseko motiboa da. Arranondo anagramatikoak ez du harremanik ia barnekaldeko laborantza-herri edo hiriekin (barnekaldeko herriek ezin ditzakete ulertu arrantzaleen arazoak eta hiria, ostera, toki madarikatua da, besteak beste, fedearen etsaiak bertan hazten direlako). Erabat itsasoari itzulia bizi da herri hau (hots, Jainkoari buruz itzulia) eta itsaso hau, Jainkoaren antzo, aldi berean eskuzabala eta beldurgarria da herritarrekin. Arrantza eskaintzen badio Itsaso-Jainkoak herriari, alegia, bizibidea, zigorra beste eskuan prest du fedea galdu dutenentzat. Lehorrean gelditutakoek elkarri kontaktzen dizkioten istorioen artean bada bat argigarria oso. Gertakari erreala omen den istorio honen arabera, itasasora arrantzatzeraz joan aintzin otoitz egitea ahanzten duenak zorigaitza erakartzen dio itsasuntziko tripulazio guztiari. Eta hain zuzen, eleberria irekitzen duen "Ekatxa" kapituluaren kantauriaren galerna izigarri baten aintzinean, herritar guztiak haserreturik bide dagoen Itsaso-Jainkoari otoitz egiten eta erreguka ikusten ditugu, arrantzaleak bizirik etxera daitezen eskatuz.

Itxaserrietako umien arrena, euren txapeltoak eskuan dituela, begi bustiak zerura jasoaz esaten dabien Aitagurea, Jaunaren agintaulkira zuzen zuzen doiala uste dot nik, eta eskari orrek, askotan, euren gaitasunak eta indarrak baño gehiago erakarten dituala etxaldera Kantauria itxasoko arrantzale gizagaixoak⁴.

Jainkoarekiko elgarretaratze mistikoak dakarren despertsonalizazio edo *itsasoratzea* behin baino gehiagotan du aipagai Iratzederrek, baina arestian aipatu dudan olerkian ez bezala, beste olerki batzuetan elkartzeko mistiko honek kutsu kolektibo bat hartzen du, ez da iadanik soilik fraidegoaren hau-tuaren drama bat olerkariak bizi duena:

Bakotxa uhain eta itsaso
Garen hura eta Jainko,
Denek bat dugu Jainkoari so
Lur guzia zerutuko⁵.

4. Txomin AGIRRE, *Kresala*, Orain S.A., 14. or. Erran dezagun, bide batez, itsasoan Jainkoaren mehatxua ikustea ez dela gauza berria. Egia esan, Bibliatik beretik datorkigu tradizio sinboliko hau (cf. GHEERBRANT & CHEVALIER, *Dictionnaire des symboles*, Ed. revue et corrigée de 1982, Ed. R. Laffont et Ed. Juppiter, Paris, 1969: "la mer est souvent dans la Bible le symbole de l'hostilité de Dieu").

5. IRATZEDER, op.cit., 401. or.

1968 urte utopiko hartan idatziriko “Uhaina” izeneko testu honetan, gizona uhain bati konparatua zaio –oroit zaitezte bokazioa aipu zuelarik uhainak fraidegoa hautatzerakoan gainditu behar izan zituen tentazio eta oztupoen sinbolo zirela– eta Jainkoa, beti bezala, itsasoari. Ohargarria da hemen itsasoarekin bat egitea ez dela dagoeneko azken helburua, baizik eta bigarren helburu bat erdiesteko bidea. Bigarren helburu hori (denek –gu guztiok– bat eginez “lurra zerutzea”) aski lanbrotsua da baina garai bertsuko zenbait olerkiri begiratzuz gero, ikusiko dugu uste baino helburu konkretuagoa dela. 1964eko “Itsasoaren mintzoa”-n, adibidez, Iratzederrek konkretasun nabarmenez darabil itsasoaren irudia:

Euskal-gizonak noiz ote gare denak-denak bat bilduren?
Hitan baitituk zabal zabalik hoinbertze uhain bat biltzen,
Errak, itsaso zeruz betea, nolaz denak bat gaitzeken.

[...] Bat egina den ur zabalean dirdiran dabil jainkoa.
Bizkai aldetik Lapurdiraino itsasoaren mintzoa,
Arkaitzez arkaitza musu-milika, batasun kantuz badoa.

Epigrafo gisa “euskal-bilkura nahasi baten ondotik” mentzioa daraman olerki luze honetan, euskaldunen batasuna –izpirituzkoa, noski, baina baita politikoa ere– fedean (itsasoan, beraz) ikusten du posible olerkariak. Fedea, beraz, bigarren helburu bat gauzatzeko bidea dateke.

Txillardegi, bitxia badirudi ere, idazle familia berean sartuko genuke, ez, noski, Jainkoa edo Jainkotasuna dakusalako itsasoaren baitan, baizik eta absolutuaren iruditat daukalako. Filosofia eta poesia uztartzen dituen *Hai-zeaz bestaldetik* (1979) eleberri nietzschetarrean orain arte aipatu ditudan bi idazleek baino askoz ere modu abstraktuagoan, itsasoa problematika esistentzial baten gune egiten du, edo gune-erdi, ezen laku edo aintzirari kontrajarriz eraikitzen baitu bere problematika. Itsasoa gizakiaren absolutu egarriaren sinbolo da (geroago ikusiko dugu zer izan daitekeen absolutua idazle honentzat) lakua aldiz giza-mugen onarpenaren eta gozamenaren sinboloa den bitartean. Eta gizakia itsasoa eta lakuaren artean mugitzen da, bi auke-retako bati erabat uko egin ezinik.

Eta lakuetakoa urgainaren geldia gogoratu zitzaidan; eta tema bihurtu ere bai. Uhinik gabeko bare giro hartara bultzatzen ninduten neure arimako asalduak eta ekaitzek. Kanpoko bakeaz baretu nahi barnea. Ene itsua!... Mugak behar, mugak nahi... mugak maite!... Baina mugak Ezereza adierazten... Heriotza nahi, horretaz, azken funtsean... Ezereza nahi. Eza!⁶

Lakua eder zaiola onartzen du narratzaileak baina era berean, eta dialektika amaigabearen sartuz, zeraz ohartzen da:

6. TXILLARDEGI, *Haizeaz bestaldetik*, Elkar, 1988 (lehen argitalpena 1979koa da), 63. or.

Hots, Itsas-kresala hatsartuz gero, lakua gutxiets; baina itsasora ezin! Eta hireak egin dik. Itsasoa urrunean bederen ikusiz gero, urdin zabal geldi hori behin bakarrik betetsiz gero, kitto baita bakea⁷.

Zer da baina itsasoaren absolutuak gordetzen duen konkretasuna Txillardegiren pentsamenduan? Ezin dakioke gauza bakar bat egotzi absolutu txillardegiarri, hain zuzen eleberri honen helburuetarik bat, autoreak inon aitortu duenez (ikus Pako Aristirekiko 1984ko elkarrizketa batetan⁸ dioena eleberri honetaz), konkretasunari bizkar ematea bait da, bide sinbolikoak hobetsiz. Interpretazioen aniztasun potentziala gorde nahi luke obra honek eta horregatik egin du autoreak sinbolismo abstraktuaren aukera. Dena den, eta posible diren interpretazioetatik bat egitera ausartuko bagina, eta beti ere autorearen ibilbide ideologikoa gogoan datxikagula, zera esango genuke, eleberriari izenburua ematen dioten bi hitzen inzialek –H eta B– baduketela zerikusirik absolutu horren konkretasunarekin. Oroitarazi behar baita eleberria 1979koa dela, hots, hegoaldean erreformismo autonomiazale eta “absolutismo” independentiazalearen arteko auzia egituratzen ari zen unekoa. Bali-teke problematika sozio-politiko honek zerikusirik izatea eleberrian garatzen denarekin⁹. Autorea bizirik dagoenez, berari galdetu behar litzaiokie zer pentsatzen duen irakurketa honetaz.

Dibinitatea eta Euskal Herriaren batasuna edo askatasuna zuten itsaso-absolututzat orain arte azterturiko idazleek, baina bada autore bat heriotzaren izakera absolutua adierazteko erabili duena itsasoaren metafora. Autore hau Ion Mirande paristar-xiberotarra da. Mirandek itsasoaren sinbolismo unibertsalaren beste alderdi bat arakatu du, alegia, Iñaki Aldekoak bere *Narra -ziogintza eta mendebaldea* liburuan azaltzen duen bezala, itsasoa azken mugatzat hartzen duen tradizioarekin. Tradizio honetan, itsasoa biziaren has-tapeneko indeterminazioaren irudia genuke, itsasoa bizitza ematen duena eta ken dezakeena litzateke, itsasoa litzateke bizitza eta heriotzaren arteko azken muga.

Uste baino gehiagotan erabili du Mirandek itsasoaren sinboloa bere literatur lanetan, baina adibiderik ezagunenetakoa da, inondik ere, *Haur beso -etakoa* eleberrian egiten den erabilpena. Aldekoaren esanetan, “*Haur besoe -takoa* nobelan Europako iparraldeko mitologia eta elezaharren igurtzi paganoa. Horixe izango litzateke kultura zelta zaharrean paradisua: ‘Gazteen lurra’. Hara zuzentzen ditu nobelako protagonistak bere gogo eta desio suharrak. Itsasoa dago tartean, itsaso bizigarria. Uretan murgiltzea izadiarekin eta

7. TXILLARDEGI, op.cit., 68. or.

8. Liburuaren hitzaurre gisa eskaintzen zaigu Pako Aristik autoreari egindako elkarrizketa bat *La Voz de Euskadi*-rentzat.

9. Hona zer dioen gorago aipaturiko elkarrizketan Txillardegik: “eta metafisika aldetik uste diat nobela hau dela gizonaren egia, nahiz eta oso tristea izan, absolutu izan nahia, bizi beharra, kontradikzio hori erre-flejatu nahi izan diat. [...] Eta honekin ez naiz Euskal Herriko egoeraz ahaztu. Hor planteatzen diren proble-mak egunero agertzen dira euskaldunengan”.

bizitzaren elementalitatearekin harremana izatea da Miranderentzat.”¹⁰ Eta honela jarraitzen du: “Nietzscheren eragina ere gertu dago nortasun aristokratiko haren formakuntzan. Gizarte arautu eta abstraktutik bizitzaren zinezko iturrietara jo nahiko luke protagonistak [intelektualismoaren aurkako bitalismoa]”¹¹.

Sartaldetar itsasoko bazterrean zegoen errialde zaar hortan, erritarren artetik hark bakarrik ote zuen sekula antsiatu ta ikusi, itsasoaz bestaldean, eriotza gabeko Gazteen Lurra, kristalezko abardun sagarrondoaz estalia den hura?¹²

Horregatik erabakitzen du protagonista nagusiak itsasoaren ur eraberri-tzaileetan murgiltzea neskaxarekin batera.

[...] Gero, deusetan geiago pentsatu nai izan ez balute bezela, itsasoan sartu ziren eta ugiñek bertan garbitu zituzten bekatu guztietatik¹³.

Bekatu guztietatik garbitzeak esan nahi du bizitza berri bati hasiera ematea; alta, protagonistak ezik haur besoetako duen neskatoak herioarekin topo eginen du itsasoan. «Gazteen lurra» –bitalitate nitzschetarraren herrialde ideiala– ez da esistitzen, edo esistitzen bada heriotza bera dateke. Bizitza absolutua (kultura kristau mendebaldetarrak jarauntsiz utzi digun bizitza beldurti eta gezurtiaren antidoto bitalista) eta heriotza gauza bakarra direnaz ohartuko da protagonista haurra itoko zaiolarik. Miranderen eleberrian Itsasoa muga bat da, gizarte hestuaeren horma artetik atera ahal izateko gainditu beharreko muga (muga inizatikoa), eta aldi berean itsasoaz bestalde dagoen hori ez da egiazko toki bat, heriotzaren sinonimo den utopia baino, finean¹⁴. Gainera ezin ahanzt dezakegu Mirandek bere buruaz beste egin zuela. Ezezkortasuna dario Miranderen pentsamenduari, zeren, funtsean zera diosku, gizartetik kanpo heriotza dagoela (gizartea ala heriotza, hori da alternati-ba bakarra).

10. Iñaki ALDEKOA, *Mendebaldea eta narraziogintza*, Erein, 1998, 28. or.

11. Ibid.

12. I. MIRANDE, *Haur besoetakoa*, 1959an idatzia, Orain, S.A., 13. or.

13. Ibid., 60. or.

14. Txomin Peillenek maiz aipatu du Miranderengandik jasotako *Haur besoetakoaren* irakurketa euskaldun bat. Hipotesi honen arabera haurra kulturaliki oraindik haur birgina eta aratza den euskalduntasuna litzateke. Gizon heldua, inguratzen duen gizarte hertsia, hipokrita, zurrin eta zuminduaren zaintzari kontra eginez, haurra beregantzen saiatzen da eta egiazko bizitzari loturiko kultura eskainiz hezten saiatzen da. Interpretazio hau ontzat hartuz gero eta urrutirago eramaten saiatzen bagara zera esan daiteke, 50eko hamarkadako Euskal Herriko giro atzeratuan Mirandek ez dakusala aukerarik bere utopia gauzatzeko. Neskaxa sar araziko du itsasoaren ur bizgarrietan baina honek bere heriotza ekarriko du. Hots, Euskal Herria ez legoke oraindik prestatua kristaua ez den beste kultura batetik edateko, ito egiten da. Mirandek ez du pazientziarik hartuko, ez du itzarongo aldaketa geldoak berarentzat bizigarria den kultura berri honen balizko hartzaille egitea Euskal Herria den neskaxa. Lehenik, euskalduntasunetik at ezarriko du bere burua (euskal idazle izateari behin betiko uko eginez, beraz sinbolikoki hiltzen da euskal literaturarentzat) eta, azkenik, fisikoki ere alde egingen du mundu honetatik.

Olerkietan ere aipatzen du itsasoa. “Undina” olerkian, kasu, itsaso-herioaren aurrean sentitzen dugun ezintasunarekin amaitzen da testua. Gizon bat ihesi doan undinaren atzetik abiatzen da itsasoan barna baina:

et'itxaslariak, beldur itxesa [naufraego], / itzuli behar du aurraun-inda-
rez¹⁵.

Ez bide da oraino Miranderentzat, olerki hau idazten duen garaian, azken muga honi aurre egiteko ordua, baina ohargarria da aspaldikoa dela idazlearen itsaso-herio horrekiko lilura. Hainbatekoa non, beste mundu baten mezulari datekeen undina bati jarraiki, oharkabean itsas-eremuaren erdian galdurik aurkitzen edo iratzartzen baita itxaslaria, hots, absolutuaren mugatik arriskutsuki hurbil.

Beste idazle batzuen obran, aldiz, ikusiko dugunez, itsasoak ez du halako konotazio mistikorik hartzen ez baita absolutuaren irudi bat, ez eta muga sinboliko batena ere.

BIGARREN UHAINA: ITSASOA ETA MUGAGABETASUNA

Erran daiteke bigarren idazle multzo batentzat itsasoa hain zuzen mugarik eza dela. Ez dela ezein absoluturen kokagunea, baizik eta aniztasunaren eremua, asmakizunaren terrenoa, balizkotasun aberasgarri guztien gertalekua. Alegia, idazle baten kasuan, orrialde zuria, birjina, aukera guztiei irekia. Idazle kategoria honek berrikuntzaren edo bestetasunaren irritsa bizi du eta itsasoa esplorakuntza eremutat dauka. Lehorrean jasan behar duten geldotasun eta antzutasun ideologikoaren antidoto gisa dakusate itsasoan gaindi harat-honat ibiltzeko askatasuna.

Hemen ere, gure jardun honetako lehen uhaina osatzen zuten idazleekin gertatzen zen bezala, bakoitzak nahi duena ikusten du itsas eremu libre horretan, izan dadila bilakuntza abertzale bat nahiz esplorakuntza guztiz literarioa (ondorioz, metaliterarioa).

Bitoriano Gandiaga, ez da preseski itsasoa gehien erabili duen poeta, eta orrialde gogoangarriagoak eskaini dizkie txakolinari, euriari edota gai solidoago batzuei. Halere, hemen aipatzea ezinbestekoa zaigu bere bigarren garaieko olerki batean ezin zehatzagoki ematen baitu itsasoaren mugagabetasunaren paradigma.

Euskal Herri,
euskaldunak badaki,
ez dela lehor soilki;
baina ez itsasoa
noraino duen herri.

15. I. MIRANDE, *Ene Jainko-Eidol zahar, lur!*, Elkar, 42. or.

Euskal Herriari,
agjan, itsasotik
ez diote mugarik
oraindik ifini

Itsasoa, itsasoa...
Eta itsasoz doa
pozik euskaldunen
zabaldu-gogoia.

Itsasora noa
–esan zuen–, ta joan zen
berrogei legoa;
ta ez zaio irudi
oraindik itsasoa
ez duenik Herri.

Itsasoa, ez kendu
ilusinoen amu
hari gabekoa!¹⁶

Kasu honetan, ohar zaitezketenez, Euskal Herriaren bilakaerari loturik agertzen da itsasoaren mugagabetasuna. Baina bestelako zerbaiti loturik agertu den beste idazleen obran ere ezaugarri berberak izango ditu itsaso sinbolizatuak: mugarik ezak ilusioa pizten du, gauza berriak aurkitzea espero du itsaso mugagabe honetako marinel ausartak.

Bukatzerakoan doakigun mende honen hasieran, jadanik, Jean Etxepare “Miri-kua”k zentzu honetan zerabilen itsasoaren sinboloa, eta ez garaikide zuen Txomin Agirre baten zentzuan. Geroago bai Lauaxeta eta bai Sarrionaindiak ere ibiliko zuten bide baten urratzaile edo aintzindaria izan zela erran daiteke. Ikus dezagun, baina, zein den bide hau.

1910ean argitaratutako *Buruxkak* artikulu-bilduman agertzen den “Amodioa” izendatu testua da, segurrenik, euskal literaturako lehen testu modernista. Bertan Etxeparek hor arte guti edo batere aipatu ez den gaia jorratzen du (maitasuna, bere alderdi sexuala barne), baina batez ere, bere testuari dimentsio metaliterario edo erreflexibo garbia emanez, gogoeta iradokigarria dago euskaraz idazten duten idazleek jasaten dituzten muga literario zein ideologikoetaz. Platonen banketea itsasoari begira dagoen Biarritzeko ostatu batean birkokatuz, joku intertestual kitzikgarri bat sortzen du, zeinen helburu nagusia ez baita amodioaren tabua haustea baizik eta euskal irakurlegoari kontzientzia har araztea nolako muga hertsietan mugitzen den eskuarki garaieko euskal literatura. Frogantza horren karietarat, bazkariko mahaikide-

16. Bitoriano GANDIAGA, *Hiru gizon bakarka*, Elkar, 1991, 80. or.

solaskide euskaldun eta erdaldun, baina oro hiritar edo hiritartuak, itsaso zabal eta abegikorri begira dagoen ostatuan jartzen ditu.

Egun hartan, eskolako lagun andana Biarritzen elgarretarat bildurik, Eskualdun eta mendien bi alderdietariko erdaldun –notari, mediku, abokat, potikario, ingañadore, eta eskoletxe handi batetako irakasle zenbeit– goxoki bazkalduak ginen denak mahain beraren inguruan, leihoak zabaldurik, itsas hegari dauden ostatuatarik batean¹⁷.

Eztabaidaren kokapen espazialaren sinbolismoa gardena da, eta nola ez ulertu Etxepareren itsasoa euskal idazleei beharrezkoa litzaeiekeen gogoeta-eremu irekiaren irudi bat bezala? Sinbolismo horrek ez die ihes eginen Etxepareren zentsuratzaileei eta gertakizun sobera ezaguna da, tamalez, bere inguruko euskal idazleek liburua bahituko diotela –bereziki bi artikulurengatik, eta horien artean, nola ez, aipatu berri duguna– eta bere heriotzaren ondotiko argitalpenak ere artikulua zonbaitzu eskas dituztela kaleratuko direla.

Hamarkada pare bat berantago, Lauaxeta modernista deklaratu eta lotsagalduak, borroka bera eramanen du bere lankideekin –hauek ere mugak ezarriko dizkiote, bere ausardia poetikoari hegalak moztu asmoz¹⁸. Eta (kasualitate hutsa ote?) itsasoa hartuko du Luaxetak bere askatasun eta esplorakuntza poetikoaren egarriaren kokagunetzat. *Bide barrijak* izen esanguratsuko bildumari azken hitza ezartzen dion olerki luzea aldarri bat da: “Itsasora!” Egia esan, sinbolotik baino hurbilago dago alegoriatik olerki hone-tan egiten den itsasoaren erabilpena, ezen eta irudiaren esanahia garbiki, ahantxu esplizituki, ematen baitigu Lauaxetak. Entzun bestela:

[...]
Itsaso-barne noa zidor ezezaunen gain.
Hondartzan oro laga! –arriskuak darraigu–,
Lur barri bilatzaile ametsa lagun dogu,
Lehorreko lokatzok geure malkoz eginak.
[...]
Bide barriak nai dauz abendaren kezkeak
Lar lurrari egon da
[...]
Geure itsaso gogorra, abendak maite zaitu!
Zeure altzora gatorz lurra ba txiker jaku.
[...]
Balerik ez dogu nahi gogai barriak baino.
[...]

17. J. ETXEPARE, “Amodioa”, in *Buruchkak*, Elkar, 1984 (lehen argitalpena: 1910).

18. *Bide barrijak* (1931) argitaratu eta kritika zaparrada eroriko zaio gainera olerkari bizkaitarrari. Euskal kritiko ofizialen presioak direla medio, *Arrats beran* (1934), bigarren bilduma, herrikoia goa eta ulertezagoa izango da.

Hementxe gatozkizuz jakintzaren egarriz.
[...]
Ontzi-puntan soinutsik.
Haize oron mosuai bihotzak zabaldurik.
[...]
Barriro hesi daigun ludiaren gerria,
Ez bitsez, ez indarrez, gogaikaz baino.
Itxaroak beroa euzkotarren ontzia
Gogoak nausi diren argitasun goiraino¹⁹.

Euskal literaturaren historialariek Lizardi eta Lauaxeta post-sinbolistatzen dauzkate eskuarki. Bada, Roland Barthes-ek zioen olerkari errromantiko edo sinbolista gehienaren baitan itsasontziak irudi uterinoak, alegia itxidura gozoaren sinboloak zirela, eta Rimbaud-ren "itsasontzi hordia" zela salbuespen bakanetakoa. Izan ere, Rimbaud-ren ontzia itsasoak eskaini dezakeen aniztasuna dastatzera doa, eta, alde horretatik, Lauaxetaren ontzi literarioaren antzera, "haize oron mosuai bihotza zabaldurik" darama.

Juan Kruz Igarabidek, orain laster hamar urte Lizarditaz emandako hitzaldi batean, itsasontziaren metafora zerabilen Gerraurreko euskal poesiaren etabaida sintetizatu asmoz:

Lizardi txalupan sartzen ikusten dugu, eta lemari heltzen. Lauaxeta ere ondoan darama, azkarrago joateko, uraundietan beldurrik gabe sartzeko esanez. Orixek, ordea, harantzagoxeagotik, nahiko abantara badaramatela eta hortik barrena ez dela joaten gainera, ur horiek itxura asko eta sustantzi gutxi daukatela, milinga eta itxuranahiekoentzat direla... Lauaxetak, suturik erantzunez, ur horiek mugitu egiten direla, bizirik daudela, Orixek joan nahi duen lekuan ur geldiak, betikoak, daudela, bere garaiean sustantzia asko zeukatenak; baina orain kiratsa omen dariela... Lizardik, isilik, irrifar bati, irrifar besteari, berea egiten du. Eta badoaz aurrera²⁰.

Horago iradoki bezala, Joseba Sarrionaindiak ere itsasoaren motiboaren antzeko erabilera egiten du bere lan poetikoan. Bere ibilbide poetikoaren lehen partean, bereziki, *Pott* bandaren ikuspegi unibertsalista eta intertestualista bereganatuz, itsasoa literatura unibertsalarekiko irekiduraren sinbolo gisa agertzen da. Iñaki Aldekoaren aburuz: "bere *Izuen Gordelekuetan Barna* irakurketetako oroitzapenak sortutako paisaia literarioetan barrena egindako nabigatze bat izan zen." Eta Sarrionaindiak Miranderekiko intertestualitate sare batean kokatuz bere itsasoratzea aditzera ematen digu nola ulertu behar den bere nabigatze poetikoa:

19. LAUAXETA, "Itsasora!", MENDIGUREN & IZAGIRRE, *Euskal literaturaren antologia*, Elkarlanean, 1999, 81-82. or.

20. Juan Kruz IGARABIDE, "Lizardiren Vobiscum", in *Hegats* 4, ekaina 1991, 64. or.

Tesoroen mapak besapean,
Etxea utzi eta undinen
Abestien xerka abiatu nintzen
Izuen gordelekuetan barrena²¹.

Eta aurkitu, aurkituko ditu olerkariak hainbeste antsiatzen dituen altxorak –literatura unibertsalaren urrezko pipitak²². Zehatzago izateko, itsasoak berak ekarriko dizkio:

Uhainak gainezka lehertzen,
Itsasoan eria da orain,
Eta haizea bustirik heltzen da
Lizarren aurpegietara.

Alexandriako paper horituak,
Oihan Beltzeko horbela eta
Coimbrako fadoak ekarri ditu
Haizeak gure etxe ateraino²³

Baina gero, bere biografiarekin zerikusia dukeen bilakaera batean sartuz, beste zerbaitetara pasatzen da eta itsasoaren motiboaren interpretazio pertsonalagoa, existentzialagoa baimentzen du idazleak. Bigarren zati honetan, itsasoa fisikoki zein metafisikoki erbesteturik bizi den gizakiaren alderraitasuna adierazteko erabiltzen da. Itsasoan gaundiko nabigazio etengabe eta helburugabea giza-kondizioa den betiereko erbestearen irudi bihurtzen da. 1978-1980 aldiko olerkietan bada, iada, itsasoaren konotazio esistentzial honen auresentipenik. Behar bada Ulises Ithakakoaren pertsonaia bere poemarioan sartuz –“Zergatik itzuli zara Ithakara, Ulises? / [...] / Egiozu kasu izarren bideari”²⁴ iradokitzen digulako hasi berri duen militantzia egiazko itzulerarik gabeko bidaia dela. Ezen, “Etxera itzuli” olerkian dioskunez:

Denborak bidea ahorturik,
Etxera itzuli nintzenean,
Berriak ziren atearen zura
eta zarraila ere.²⁵

Sarrionaindiaren marinel olerki hauek hagitz ezagunak dira –errepikatuki musikaratuak izan direlako, beste arrazoi askoren artean– eta olerki hauen inguruan kritikoez eginiko azterketak ere ugalduta dira azken urteotan. Beraz,

21. J. SARRIONAINDIA, *Marinel zaharrak*, Elkar, 84. or.

22. Aitortu behar da itsasoaren sinbolismoa metaliteraturtasunetik haratago doala iurretarraren obran eta, europar sinbolismo tradizionalaren ildotik, itsasoa (edo basamortua) ziutate industrial eta burgesaren aurkako alternatiba utopiko esperantzagabearen irudi gisa ere erabiltzen duela.

23. *Ibid.*, 113. or.

24. *Ibid.*, 90. or.

25. *Ibid.*, 84. or.

zilegi bekigu argitaratu diren Azkorbebeitia edota Aldekoaren lan interesgarrietara igortzea –guztiak ez aipatzearen– bizkaitararen olerkigintzaren alderdi hau hurbilagotik ezagutu nahi lukeen entzulea²⁶.

Bururatzeko berriz ere Miranderen itsasora itzuli nahi genuke. Lehen aipatu testuetan ikusi dugu nola Mirandek absolutura iristeko zeharkatu beharreko azken muga deritzola itsasoari. Bada, ez du beti zentzu horretan erabili olerkariak itsasoaren motiboa. Gure bigarren uhainean, mugagabetasunarenean, sartzeko moduko olerki ezezagun samarra ere idatzi zuen. “Itsasuntzi zaharra” izeneko testu misterioz betean Lauaxetarena izan zitekeen unti bat deskribatzen digu, zeinak ezagut daitezkeen portu eta lurrik gehienak, ez bada guztiak, esploratu eta ezagutu baititu:

lurralde adeitsu jathorren
albotiko bidez zetorren
arbatu gabeen untzia.
lur on irritsuak izanak
gatik, ez ziraden gelditu²⁷

Eta “ez ziraden gelditu” esaldia da poema honen *leitmotiv* harrigarria. Toki eta gauza zoragarrienak bisitatu eta eskura izan ondoren, hala nola “ekhiurrezko soin”ekiko ondartzan irrikiz zeutzan neskatxak, “han ere geratu ez ziran” labur batez bururatzen dira estrofa. Eta haizeak jo ez arren eta marinelak “bideko asperraz” alferturik arraunak oro geldirik badira ere untzia “aurrera zihoan”. Mugagabetasunak behiala pizturiko jakinmina eta bidaiatzeko irritsa nonbait galdu dute Miranderen marinelek eta azken bertso izugarriak zapore mikatza dauka benetan, absolutu egarriarekin agitzen zen modura mugagabetasunak eskaintzen zituen aukera oparoak ere heriotzarekiko elkarrizketa bihurtzen baitira. Itsasontzia norabide zehatzik gabe doa, bere kabuz, eta nahikeri edo borondate agortzeraino flakatuak baizik ez die eragozten marinelei untzia zartaraziz beraien buruak urperatzea:

untzia ber-ogüz utzirik,
bihotz-minak oro hezirik
hondamen haiduru zegozen,
nahi endurregiz ez ausart
untzia suthautsez jauzaraz²⁸

Absolutuaren uhaina eta mugagabetasunaren uhaina ekarri ditugu hurrenez hurren orrion hondartzara, eta arras ezohizkoak diren idazle artxipelagoak osatu ditugu, zeintzuetan elkartzen baitira, lehenean Iratzeder, Txillardegia, Txomin Agirre eta Ion Mirande, eta bigarrenean Mirande berriro, Bitoriano

26. Iñaki ALDEKOA, *Zirkuluaren hutsmina*, Alberdania, 1993.

27. I. MIRANDE, op.cit., 46. or.

28. Ibid., 48. or.

Apalategi, Ur: Itsasoaren erabilpen sinbolikoak XX. mendeko zenbait idazleen obran

Gandiaga, Joseba Sarrionaindia, Etxepare «Mirikua» eta Lauaxeta. Ezaba beza, orain, sablean zirriborraturiko gogoeta iraungaitz hau itsasoaren beraren hurrengo uhainak.